

## Diseinuko ikasleak londreseko Desing Museoa

2007/07/16

Goi Eskola Politeknikoko Industri Diseinuko Ingenieritza Teknikoko bigarren eta hirugarren mailako ikasleak eta proiektua garatzen ari direnak Londresko Design Museun-a bisitatu zuten maiatzean. Denera, 70 bat ikasle joan ziren irakasle batekin, museoa bisitatzeaz gain Londres ezagutzera.

Bertako toki turistikoa ezagunenak bisitatu, hainbat museo bisitatu eta Design Museumean zehazki gaur egungo diseinuaren panorama aztertu zuten bereziki. Bertan, erakusketa iraunkorraz gain, bi erakusketa zeuden ikusgai, Ettore Sottsass diseinatzaile italiarraren retrospektiba bat, bizitzan zehar lan egin duen enpresa ezagunenak aipatuz, Olivetti esaterako eta bigarrena Luigi Colani diseinatzailearena, automozioan lan handia egin duen gizona, BMW bezalako enpresentzat Concept car-ak eginez esaterako.

Horrelako bidaia antolatu den lehen urtea da baina, bere emaitza baikorrak ikusirik eta ikasleentzat atzerriko diseinua ezagutzeak duen garrantzia kontuan izanik, datozen urteetan errepikatzeko esperientzia izan da.



Diseinuko ikasleak londreseko Desing Museoa